

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Baso aprobetxamendurako enkante publikoa

Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrak 2019ko ekainaren 22an egindako kontzeju bilkuran hartutako erabakiaren bidez, eta Arabako Foru Aldundiaren beharrezko baimenarekin, baso aprobetxamendu honen enkante publikoa iragartzen da:

Lotea: 4515 intsinis pinu; erabateko mozketa; bolumena: 4133 metro kubo material; lizitazioa: 186.264 euro, BEZa aparte.

1. Erakunde esleitzaila, kontratuaren xedea eta lizitazio oinarria.

Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra

Lote bakarra; onura publikoko 40 mendia; dermioa: Mastondo; lurzatiak: 571 (9.1-6.4 egikaritze unitatea) eta 573 (9.2 egikaritze unitatea).

2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

Izapidetzea: arrunta

Prozedura: irekia

Modua: enkante publikoa

3. Lizitazio oinarria:

Lote bakarra: 186.264 euro

4. Behin-behineko eta behin betiko bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: esleipenaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

5. Ordainketa baldintzak:

administrazio klausula berezien agirian adierazitakoak.

6. Aprobetxamendurako epea:

Azken eguna: 2020ko urriaren 31.

7. Iragarki gastuak:

Esleipendunak ordainduko ditu.

8. Agiriak eta lizitazio baldintzei buruzko argibideak eskuratzeko:

Hemen daude ikusgai administrazio klausulen agiriak eta aprobetxamendua arautzen duten baldintza agiriak:

- Administrazio batzar honen kontratatzailearen profila.

- Aiarako Udala (Elizako auzoa 2, 01476 Arespalditza; telefonoa: 945 399013; faxa: 945 399331; info@aiarakoudala.com), astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14:00etara, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera eta eskaintzak aurkezteko epearen amaiera arte.

9. Eskaintzak aurkeztea:

Aurkezteko lekua eta data: eskaintzak, batera aurkeztuko diren bi gutun azal itxitan, Aiarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 9:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. Eskaintzak aurkezteko epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea izanez gero, epea hurrengo egun balioduneko 14:00etara arte luzatuko da.

Eskaintza eredu eta aurkeztu beharreko agiriak: lizitatuzaileek administrazio klausula berezietan agiritan eta baldintza agiritan jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztuko dituzte eskaintzak.

10. Gutun azalak irekitzea:

Goizeko 10:00etan, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarraren egoitzan (San Pedro auzoa zenbakirik gabe, San Pedro elizaren ondoan), eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren laugarren egun baliodunean (larunbata ez).

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Menagarai-Beotegi, 2019ko ekainaren 22a

Lehendakaria

M^a CARMEN CAMPO URQUIJO